# Eusko Jaurlaritzaren Publizitate eta Komunikazio Instituzionalaren Plana

2017

**AURKIBIDEA**


| | Or. |
|---|---|
| **Hitzaurrea** | 2 |
| **Lehendakaritza** | 3 |
| **Gobernantza Publikoa eta Autogobernua** | 4 |
| **Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak** | 5 |
| **Enplegu eta Gizarte Politikak** | 11 |
| **Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza** | 12 |
| **Ogasuna eta Ekonomia** | 14 |
| **Hezkuntza** | 15 |
| **Osasuna** | 16 |
| **Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa** | 18 |
| **Kultura eta Hizkuntza Politika** | 19 |
| **Segurtasuna** | 20 |
| **Lana eta Justizia** | 21 |

## HITZAURREA

Eusko Jaurlaritzaren Publizitate eta Komunikazio Instituzionalaren 2017ko Plana 2017ko otsailaren 28an aurkeztu da Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordean. Planean jaso dira aurtengo publizitate aurreikuspenak, sailek Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordearen idazkaritza teknikoari bidali dizkioten proposamenetan oinarrituta.

Autonomia Estatutuaren 9.2 artikuluak euskal botere publikoei agintzen die herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaintzea eta bermatzea eta herritar horien askatasuna eta berdintasuna sustatzea, bai eta Euskadiko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-arloetako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratzea ere. Agindu hori bete dadin, botere publikoei dagokie aipatutako sustapena eta partaidetza bultzatzeko beharrezkoak diren mezuak helarazi eta zabaltzea. Informazioa eta komunikazioa betebehar instituzional bat dira, horrenbestez.

Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Instituzionalari buruzko 6/2010 Legeak, bestalde, 13. artikuluan xedatzen du Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordeak, urtero, Eusko Jaurlaritzako sailetatik eta lege honen 2. artikuluaren 1. paragrafoan aipatutako gainerako erakunde, organo eta izakundeetatik jasotzen dituen proposamenetan oinarrituta, publizitateko eta komunikazioko plan bat prestatuko duela. Planean, hain zuzen ere, aurrera eramango diren aurreikusitako kanpaina instituzionalak sartuko dira. Urteko plan horretan, gutxienez, honako alderdi hauek zehaztu beharko dira: kanpaina bakoitzaren helburua, aurreikusitako kostua, gauzatze-epea, erabilitako komunikazio-tresna eta -euskarriak, mezuen zentzua, mezuen hartzaileak, eta zein erakunderi eragiten dien.

Publizitateari buruzko Legea betez, agiri honetan azalduta daude Jaurlaritzak aurten gauzatu asmo dituen publizitate-ekintzak zein diren, eta, ahal bada, horien aurrekontu-aurreikuspenak, urtean zehar sortzen diren komunikazio-beharrei erantzuteko beste ekintza batzuk baztertu gabe. Horrelakoetan, sailek Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordean aurkeztu beharko dituzte kanpaina horiek, ondoren garatzeko.

## LEHENDAKARITZA

| LEHENDAKARITZA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENA** | **DESKRIBAPENA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **GOBERNUAREN NEURRI EKONOMIKOEI BURUZKO KANPAINA** | Zeharkako kanpaina instituzionala, azaltzeko Eusko Jaurlaritza zein neurri ekonomiko ari den bultzatzen enplegua errekuperatu eta ekonomia suspertzeko baldintzak sortzeko. | Herritarrak | 3. hiruhilabetekoa | -Prentsa<br>-Irratiak<br>-Telebista<br>-Digitalak<br>-SARE SOZIALAK | 400.000 € |
| **GIZA ESKUBIDEEN KANPAINA** | Abenduaren 10ean Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela-eta, Gobernuak sentsibilizatzeko kanpaina burutuko du efemeride hau ospatzeko, eta giza eskubide guztien alde jardun beharra gogora ekartzeko. | Herritarrak | 3. hiruhilabetekoa | -Prentsa<br>-Irratiak<br>-Telebista<br>-Digitalak | 57.000 € |
| **"BASQUE COUNTRY" IKURRARI ZABALPENA EMATEA** | Basque Country estrategiaren barruan, hainbat publizitate-ekintza burutuko ditu Lehendakaritzak, Euskadiri kanpoan proiekzioa emateko. | Herritarrak | Urte guztia | -Prentsa<br>-Irratiak<br>-Telebista<br>-Digitalak<br>-SARE SOZIALAK | 50.000 € |
| **PARTEHARTZEA ETA GARDENTASUNA BULTZATZEKO KANPAINIA** | Ekimen honen helburuak hauexek dira: gizarteak gardentasunaren inguruan dituen ezaguerak areagotzea, jakitera eman nazioarteko Gardentasun 80 adierazleen betegarritasuna eta gizartearekiko harremana sustatzea. | Herritarrak | Apirila-maiatza | Sare sozialak | 17.000€ |
| **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO KANPAINA (EMAKUNDE)** | Emakundek kanpaina bat abiaraziko du berdintasunezko gizarte baten norberak duen ardurak zein eguneroko jarrerek dituzten garrantzia azpimarratzeko. Kanpainia hau Emakumeen Nazioarteko Egunean, martxoaren 8an, hasiko da. | Herritarrak | Urte guztia | -Prentsa<br>-Irratiak<br>-Telebista<br>-Digitalak<br>-SARE SOZIALAK | 265.000 € |

| GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENA** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ KANPAINA** | Kanpaina instituzional honen helburua da euskararen erabilerari eta hizkuntza-normalkuntzari indarra eta bultzada ematea, herritarrek EAEko administrazio publikoarekin dituzten harremanetan. | Herritarrak | Urtekoa | Zehazteke | 25.000€ |
| **ZURE ADMINISTRAZIO PUBLIKO DIGITALA - ERABILI EUSKADI.EUS KANPAINA** | Ahalik eta herritar gehienei administrazio elektronikoaren berri ematea, aurrerantzean www.euskadi.eus web orri diseinatu berria erabiliz izan dezaten harremana Euskadiko administrazio publikoarekin. | Herritarrak | Urtekoa | Zehazteke | 80.000€ |
| **IRAGARKI OFIZIALAK (IVAP)** | IVAPek sarri-sarri publikatzen ditu Euskadiko Administrazio Publikoarekin lotutako gaiei buruzko iragarki ofizialak, gehienetan, herritarrei prestakuntza-kurtsoetako epeen, lan-poltsen deialdien, azterketen eta denen intereseko beste kontu askoren berri emateko. | Herritarrak | Urtekoa | EAEn paperean editatzen diren egunkariak | Zehazteke |

## EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK

| GARAPEN EKONOMIKOKO ETA AZPIEGITUREN SAILA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENAK** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **NAZIOARTEKOTZEKO BEKAK + GLOBAL TRAINNING KANPAINA** | Euskal gazteei giza kapitala kapazitatzeko interesa piztea, hainbat ekintzak landuz; zehazki, kanpo-merkataritzaren nahiz enpresen nazioartekotzearen arloan. | Euskal gazteria, zehazki, eta euskal herritarrak | Martxoak 17 | Zehazteke | 17.900 € |
| **3E ESTRATEGIA BULTZATZEA KANPAINA** | Euskal herritarrei energiak gizartean nahiz ekonomikoan duen garrantzia jakinaraztea, Energiaren Euskal 2025 Estrategia berriekin lotutako hainbat ikuspegitatik. | Euskal herritarrak | Urtekoa | Zehazteke | 40.000€ |
| **BASQUE INDUSTRY 4.0 KANPAINA** | Basque Industry 4.0 estrategia berria, Euskadin dagoeneko martxan dena, ezartzeko premia azpimarratzea. | Euskadiko nahiz estatuko herritarrak | Urtekoa | Zehazteke | 100.000 € |
| **LOGISTIKAREN SUSTAPENA KANPAINA** | Euskadik logistikarako daukan potentziala sustatzeko eta jakinarazteko ekintzak. | Euskadiko nahiz estatuko herritarrak | Urtekoa | Zehazteke | 17.900€ |
| **GARRAIOAREN AZPIEGITUREN SUSTAPENA KANPAINA** | Publiko objektiboen artean Euskadiko garraio-azpiegiturak sustatzeko kanpaina. | Euskadiko nahiz estatuko herritarrak | Urtekoa | | 17.900 € |
| **EL ECONOMISTA** | Euskadiko errealitate sozioekonomikoaren ikuspegi zabala ematea, hainbat euskarritan. | Euskadiko nahiz estatuko herritarrak | Ekainetik abendura | Digitala | 10.000 € |
| **GARAPEN EKONOMIKOA ETA AZPIEGITURAK SARE SOZIALETAN KANPAINA** | Garapen Ekonomiko eta Azpiegituren Sailak sare sozialetan daraman estrategiari bultzada ematea. | Euskadi, estatuko nahiz nazioarteko herritarrak | Urterokoa | Sare sozialak | 17.900 € |
| **BIND 4.0 KANPAINA** | 4.0 eremuan Startup direlakoak bizkortzeko ekimena sustatzea. | Euskadiko ekintzaileak | Urterokoa | Zehazteke | 17.900€ |
| **PROGRAMA MONOGRAFIKOAK IRRATIETAN** | Ekonomiaren sustapena hainbat alorretan | Euskal herritarrak | Urterokoa | Irratiak | 30.000€ |
| **ARRANTZA EUSKADIN** | Euskadiko arrantza-sektoreko ekintzak, ekimenak eta bestelako gai interesgarriak sustatzea eta ugaritzea | Euskal herritarrak | 2017KO OTS-ABEN | €pa Urdina | 5.000 € |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EUSKADIKO ARRANTZA-SEKTOREA** | Euskadiko lehen sektorearen irudia hobetzea, eta arrantza-sektoreko ekintzak, ekimenak eta bestelako gai interesgarriak jakinaraztea | Bizkaiko Lurralde Historikoko jendea | 2017KO OTS-ABEN | Irratiak | 12.000 € |
| **ENPRESEN NAZIOARTEKOTZE BASQUE COUNTRY KANPAINA** | 70 herrialdetan kokatuta dagoen enpresa-sareari zabalpena ematea. | Industria sektorea eta herritarrak | Udaberri eta udazke-nean | Prentsa eta internet | 50.000€ |
| **EUSKAL ENPRESA SUSTATZEKO KANPAINA (SPRI)** | SPRI Taldeak elkarrizketa-espazioak ematen dizkie Euskadiko enpresaburuei, Euskadiko enpresa babesteko beste zerbitzu bat eskaintzeko asmoz eta, protagonista ekonomikoen bitartez, gure ekonomiaren egoeraren, unearen eta premien egiazko irudia emateko. Horretarako: Euskal irratietan elkarrizketak antolatuko dira | Euskal herritarrak | 2017 (uztaila eta abuztua izan ezik) | Irratiak | 83.471,43 € |
| **PARKEAK SUSTATZEKO KANPAINA (SPRI)** | Lurralde historiko bakoitzeko parke teknologikoak eta bertan kokatutako enpresak aintzat hartzeko ekintzak. | Euskal herritarrak eta unibertsitatea | Urtekoa | Zehazteke | 15.000 € |
| **TEKNOLOGIA INDUSTRIAN: BASQUE INDUSTRY 4.0 KANPAINA (SPRI)** | Basque Industry 4.0 kongresuaren berri ematea, euskal enpresak, zentro teknologikoak, unibertsitatea, ekintzaile teknologikoak eta herritar guztiak horren jakinaren gainean egon daitezen. Kongresuaren 4. edizioa izango da aurtengoa, eta Industria 4.0 delakoaren teknologia berriak euskal enpresetan gero eta gehiago aplikatzea izango du helburua. | Euskal enpresak, zentro teknologikoak, unibertsitatea, ekintzaile teknologikoak eta herritarrak. | 2017ko urria-azaroa | Irratia eta Internet | 18.000€ |
| **NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEKO KANPAINA (SPRI)** | Mundura Begira kongresuaren berri ematea, euskal enpresa, unibertsitatea eta gizartea horren jakinaren gainean egon daitezen. Bigarren edizioa izango du, eta nazioartekotzea euskal erakunde guztiek elkar hartuta bultzatu beharreko egitasmoa dela azpimarratzen saiatuko da aurten. | Euskal enpresak, zentro teknologikoak, unibertsitatea, ekintzaile teknologikoak eta herritarrak | 2017ko ekaina | Irratia eta Internet | 18.000€ |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK IRRATI BIDEZ ZABALTZEKO KANPAINA (EVE)** | Energia aurrezteko aholkuen gaineko irratiko kanpaina: energiaren erabilera arduratsua, energia-eraginkortasunaren ezagutza zein energia berriztagarriak sustatzeko | Euskadiko herritarrak | Urtarrila-ekaina<br><br>Iraila-abendua | Irratiak | 103.000 € |
| **ENERGIA OROKORRAK ETA BERRIZTAGARRIAK ARDURAZ ERABILI BEHARREKO KANPAINA (EVE)** | Energiaren erabilera arduratsua, sektore jakin batzuetako energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzea. | Euskal herritarrak | Urterokoa | Informazio orokorreko euskal prentsa eta ekonomia, azpiegitura k edo energiari buruzko gehigarriak Prentsa espezializat ua | 100.000 € |
| **MARTXOAK 5: ERAGINKORTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA KANPAINA (EVE)** | Euskadiko energia alor guztietan hobetzeko, energia-eraginkortasuna lagungarri izan daitekeela nabarmentzea, eta herritar bakoitzak bere partea egin dezakeela, gainera. | Euskal herritarrak | Martxoak 5 | Komunikab ide idatziak Irratiak Digitalak | 35.000 € |
| **ENERGIAREN €PAKO ASTEA, ETA UDALERRIEN ITUNA KANPAINA (EVE)** | Energiaren €pako Astearen eskutik antolatutako kanpaina da, eta aste hori sustatzeko eta udalek eraginkortasunaren alorrean nahiz energia-aurrezteko ituna izenpetu duten hainbat alkatek hartuko dute parte bertan | Euskal herritarrak | Ekainak 11-15 | Irratiak | 10.000 € |
| **ENERGIAREN EUROPAKO ASTEA, ETA UDALERRIEN ITUNA KANPAINA (EVE)** | Hedabide orokorretan kontrataturiko iragarki baten bidez, energiaren zentzuzko erabilera sustatzea. | Arabako herritarrak | Abuztua (2017) | Prentsa | 1.500 € |
| **EUSKOTRENEKO ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO KANPAINA (EUSKOTREN)** | Garraio publikoa erabiltzea komeni dela jakinaraztea herritarrei, eta informazioa zabaltzeko ohiko espazioetan Euskotrenen zerbitzuen berri ematea. | Herritar guztiak, bereziki Euskotren erabiltzen dutenak | 2017ko urtarrileti k abendura | Irratia | 134.121 € |
| **EUSKOTREN JENDE GEHIAGOK ERABILTZEKO KANPAINA (EUSKOTREN)** | Euskotrenen zerbitzuen berri ematea, erabiltzaile gehiago erakartzeko, enpresaren irudiak indar gehiago hartzeko eta jendeak garraio publikoa gehiago erabil dezan. | Herritar guztiak, bereziki Euskotren erabiltzen dutenak | 2017ko urtarrileti k abendura | Herrietako telebistak | 11.052 € |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EUSKOTREN IKURRARI INDARRA EMATEA, ETA HERRITARREK GARRAIO PUBLIKOA GEHIAGO ERABILTZEKO KANPAINA (EUSKOTREN)** | Enpresaren irudiari indarra ematea eta herritarrek garraio publikoa gehiago erabil dezatela. | Herritar guztiak, bereziki Euskotren erabiltzen dutenak | 2017ko urtarrileti k abendura | Komunikab ide idatziak | 84.000 € |
| **3. LINEAREN KANPAINA (EUSKOTREN)** | Euskotrenen zerbitzuen berri ematea, erabiltzaile gehiago erakartzeko, enpresaren irudiak indar gehiago hartzeko eta jendeak garraio publikoa gehiago erabil dezan. | Herritar guztiak, bereziki Euskotren erabiltzen dutenak | Apirila-maiatza | Prentsa Irratia | 5.000 € |
| **UNITATEAK DURANGOTIK 3. LINEARA SARTZEKO KANPAINA (EUSKOTREN)** | Euskotrenen zerbitzuen berri ematea, erabiltzaile gehiago erakartzeko, enpresaren irudiak indar gehiago hartzeko eta jendeak garraio publikoa gehiago erabil dezan. | Herritar guztiak, bereziki Euskotren erabiltzen dutenak | Ekaina-uztaila | Prentsa Irratia | 5.000 € |
| **GREBETAKO KANPAINA (EUSKOTREN)** | Gutxieneko zerbitzuen gaineko informazioa ematea | Euskotreneko erabiltzaileak | Lehenen seihilekoa | Prentsa Irratia | 5.000 € |
| **BIZIEUSKOTREN KANPAINA (EUSKOTREN)** | Erabiltzaileei gogoraraztea garraio publikoan jator eta zintzo jokatu beharra dagoela | Euskotreneko erabiltzaileak | Bigarren seihilekoa | Prentsa Irratia | 8.000 € |
| **GARRAIO-AZPIEGITURAK KANPAINA (ETS)** | Euskal Trenbide Sarea – Red Ferroviaria Vasca korporazioari hedapena ematea, azpiegituren sektoreko komunikabide espezifikoetan eta gehigarrietan | Trenbideen arloko argitalpenen harpidetuak | Urterokoa | Internet eta prentsa idatzia | 9.000,00 |
| **DONOSTIALDEA TOPOA KANPAINA (ETS)** | Komunikazioak zabaltzea, Lugaritza-Morlans trenbide-zatiaren bariantea eraikitzeko obrak hastear daudela-eta. Donostiako erdialdean lurpeko hiru estazio egingo dira, besteak beste. | Euskadiko herritar guztiak. | Urterokoa | Prentsa, irratia eta bide digitalak | 70.550 € |
| **GASTEIZKO GARRAIO-PLANA KANPAINA (ETS)** | Komunikazioak zabaltzea, Gasteizko tranbiaren eta bus elektrikoaren ibilbidea kanpuseraino luzatuko dela-eta. | Gasteiztarrak eta Arabako kanpuseko ikasleak | Urterokoa | Prentsa idatzia eta irratia | 34.000,00 |
| **EUSKADIKO KALITATEZKO PRODUKTUAK: BASQUE, ZER JAN HURA IZAN! ETA EUSKO LABEL KANPAINA (HAZI)** | Euskadiko Kalitatezko produktuen kontsumoa nahiz ezagupena handitzea: Basque, zer jan hura izan. Produktu hauek aipatuko dira: ekoizpen ekologikoa, Arabako Errioxako | Euskal herritarrak | Apirila-ekaina | Telebista, irratia eta prentsa idatzia | 200.000€ |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ardoa, Idiazabal gazta, Araba, Bizkaia ta Gipuzkoako txakolina, Euskadiko Sagardo Naturala eta Eusko Label produktuak.<br>Irudi berdina erabiliz, pieza espezifikoa ere sortuko da Eusko Label zigilua daukaten produktu guztien promozioa egiteko | | | | |
| **GERNIKAKO PIPERRA ETA EUSKO LABEL TOMATEA KANPAINA (HAZI)** | Gernikako piperren eta Eusko Label tomateen urtaroan gaudela jakinaraztea eta aipatutako produktuen ezaugarri onak azpimarratzea. | Euskal herritarrak | Maiatza-ekaina | Irratia eta prentsa idatzia | 10.000€ |
| **HEGALUZEAREN KANPAINA (HAZI)** | Eusko Label Hegaluzearen markaren ospea areagotu eta kontsumoa handitzea. | Euskal herritarrak | Ekaina-iraila | Irratia, prentsa idatzia eta telebista | 50.000 € |
| **BASQUE LABEL HARATEGIAK KANPAINA (HAZI)** | Euskadiko kalitateko produktuak saltzen, bereziki Euskal Okela saltzen, espezializatutako denden sare berria ezagutaraztea. | Euskal herritarrak | Iraila-abendua | Irratia, prentsa idatzia eta telebista | 170.000€ |
| **EUSKO LABEL: EUSKADIKO KALITATEZKO PRODUKTUAK KANPAINA (HAZI)** | Eusko Label kalitatea daukaten produktuen sorta bistaratzea eta ospe handiagoa ematea. | Euskal herritarrak | Urtarrila-abendua | Zehazteke | 20.000€ |
| **GURE ZURA: EUSKADIKO EGURRA ZURE BIZITZAN DAGO KANPAINA(HAZI)** | Gure basoen kudeaketa jasangarriaren berri ematea, eta bertako egurrarekin egindako produktuak ezagutaraztea. | Euskal herritarrak | Urtarrila-abendua | Zehazteke | 20.000€ |
| **NIREA: HIRIARI LANDATIK KANPAINA (HAZI)** | Euskal gizarteak Euskadiko landaren nahiz itsasertzaren garapen jasangarriarekin konpromisoa hartzea. | Euskal herritarrak | Urtarrila-abendua | Zehazteke | 20.000€ |
| **ELIKAGAIEN SEGURTASUNA AREAGOTZEKO KANPAINA (ELIKA)** | Elikagaien segurtasunari eta horren alde egiten den ahaleginari ospea ematea herritarren aurrean. | Euskadiko eta Nafarroako kontsumitzaileak, lehen sektoreko profesionalak eta arlo horretan erantzukizuna daukaten administrazioak | Urterokoa | Sare sozialak | 4.100 € |

## ENPLEGUA ETA GIZARTE-POLITIKAK

| ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENAK** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **KANPAINA SAFER INTERNET DAY EGUNA ETA LEHIAKETA** | Internet Aseguruaren Nazioarteko Eguna (otsailaren 7a) baliatuz, Internet arriskurik sortu gabe erabiltzea ze garrantzitsua den ikusaraztea gazteei. | Gazteak/familiak | Otsaila Apirila | prentsa /irratia/ aldizkaria | 15.000 € |
| **KANPAINA LGTBI** | Nazioarteko LGTBI eguna dela-eta, sailak informazioa eta arreta emateko zerbitzua jarriko du, sexu eta genero aniztasunarekin lotuta kontuei buruzko kontuak lantzeko. *Berdindu.* | LGTBI kolektiboa | Ekaina | prentsa /aldizkariak | 9.000 € |
| **EDADETUAK KANPAINA** | Euskadi Lagunkoia eta Beti On zerbitzuak zer diren erakustea jende edadetuari, Edadetuen Nazioarteko Egunaren aitzakian. | Edadetuak | Urria | prentsa /irratia/ aldizkaria | 15.000 € |
| **EMAKUMEA ETA ENPLEGUA JARDUNALDIA** | Women in Progress 2016 jardunaldiaren berri zabaltzea. Lanbide teknologietan generoen artean dagoen tartea aztertuko da, eta etorkizunean sortuko diren enplegu-tipoen eta enplegu horiek lortzeko behar den prestakuntza berri emango zaio jendeari. | Gazteak eta bestelako herritarrak | Martxoa | Prentsa | 18.000 € |
| **GAZTE UP JARDUNALDIA** | Gazteentzako enpleguari buruzko GazteUp Jardunaldiaren berri zabaltzea. Jardunaldiaren helburua da, batetik, jakitea zein diren enplegua aurkitzeko eragina daukaten faktoreak, eta, bestetik, gazteei beren laneko etorkizunerako orientazioa ematea. | Gazteak | Otsaila eta maiatza | Prentsa | 29.850 € |
| **LEHEN AUKERA KANPAINA (LANBIDE)** | *Lehen Aukera* programaren berri ematea. Gazteei beren titulazio akademikoekin lotutako enpleguko lanetan eskarmentua emateko da programa. | Gazteak | Programa aktibatzen den bakoitzean | Irratia, prentsa | Zehazteke |

## INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA

| INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENA** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA, GGB (BEZ GABE)** |
| **BIZIGUNE KANPAINA** | Partikularren etxebizitza hutsak kaptatzea, alokairu sozialeko Bizilagun programarako (Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak kudeatutakoa). | Herritarrak, oro har | Urte guztia. | - Prentsa<br>- Irratia<br>- Digitalak | 90.000€ |
| **ERAIKINEN AZTERKETA TEKNIKOA KANPAINA** | Hiritarrak eraikinen azterketa teknikoa pasatu beharraz jabetzeko kanpaina da, Euskadiko etxebizitzen segurtasuna, irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko. | Herritarrak, oro har | 2. eta 4. hiruhilekoa | - Prentsa<br>- Irratia | Zehazteke |
| **KLIMA ALDAKETAREN KONTRAKO KANPAINA** | Herritarrei klima-aldaketaren kontra jarduteko eta gure inguru naturala kontserbatzeko premiaz gogoeta eginaraztea. | Herritarrak, oro har | Urte guztia | - Prentsa<br>- Irratia | Zehazteke |
| **INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA** | Ingurumenaren Festa eguna izango da ekainaren 5a. Kanpaina horren bitartez, ingurumena dela-eta tokian bertan nahiz globalki denok daukagun arduraz jabetzea nahi du Eusko Jaurlaritzak, eta erakutsi nola herritarrek ere baduten beren papera aldaketa eragin eta garapen justu eta orekatua bultzatzeko, hurrengo belaunaldiei etorkizun ekologikoagoa lagako badiegu. | Herritarrak, oro har | Ekaina | Prentsa<br>Digitalak<br>Irratia | Zehazteke |
| **LURRALDE PLANIFIKAZIORAKO KANPAINA** | Ezagutzera eman Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak baita lurralde antolamentuak garapen eraginkorrean, ekonomiaren lehiakortasunean eta gizarte kohesioan duen eragina aditzera eman. | Herritarrak oro har | Urtekoa | Zehazteke | Zehazteke |
| **NATURA 2000 SAREA KANPAINA (IHOBE)** | Natura 2000 Sareak EAEn dauzkan espazioak ezagutaraztea, espazio natural horiek kontserbatzeko egindako inbertsioa aintzat har dezan jendeak. Eta espazio horietara asteburuko aisialdi- | Herritarrak, oro har | Urtekoa | Prentsa<br>Telebista<br>Irratia<br>Digitalak | Zehazteke |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | bisitak egiteari bultzada ematea. | | | | |
| **URA DA, GU GARA KANPAINA (URA)** | Ur-ingurunearen balio ekosistemikoa ezagutaraztea, ura garbi edukitzeko ardura hartu beharraz konturaraztea herritarrei, eta ura zaintzeko herritarren laguntza bilatzea. | Herritarrak, oro har | Urte guztia | Telebista Irratia | 70.000 € |
| **URAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN KANPAINA (URA)** | Herritarrei martxoaren 22a gogoratzea eta ura zaintzen parte har dezaten gonbita egitea. | Herritarrak, oro har | Martxoa | Irratia | 8.000 € |

## OGASUNA ETA EKONOMIA

| OGASUNA ETA EKONOMIA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENA** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA ZABALTZEKO KANPAINA** | Kanpaina honen helburua da aurrekontuen eta ekonomiaren arloan eskuragarri dagoen informazioa zabaltzea | Gizartea | Zehazte ke | Zehazteke | 40.000€ |

## HEZKUNTZA

| HEZKUNTZA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENA** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **EUSKAL ESKOLA PUBLIKORAKO AURRE-MATRIKULA KANPAINA** | Euskal Eskola Publikorako aurre-matrikularen epeak jakinaraztea, eta hezkuntza-sistemaren mesedeen inguruko informazioa zabaltzea. | Herritarrak | Urtarrilaren 28a eta otsailaren 10a bitartean 10/02 | Kalean<br>Irratia<br>Prentsa<br>Internet<br>Telebista | 211.559,48 € |
| **HEZKUNTZA SAILAREN MENPEKO IKASTETXEETAN IKASKETAK EGITEKO MATRIKULA KANPAINA** | Hainbat ikasketetan matrikulatzea sustatzea (LH, Dantzerti, Musikene…) | Herritarrak | 1 edo 2 astetan, matrikula egunak direnean | Prentsa, Irratia,.. | 100.000 € |
| **HEZKUNTZA KOMUNITATEARENTZAT INTERESEKO GAIE BURUZ SENTSIBILIZATZEKO KANPAINAK** | Herritarrak kontzientziatzea eta informatzea interes bereziko gaiei buruz | Herritarrak | 1 edo 2 aste, behar denean | Prentsa, irratia, liburuxkak… | 100.000 € |
| **IRAGARKI OFIZIALAK** | Hezkuntza Sailak hainbat iragarki argitaratzen ditu Sailearen jarduerak ezagutarazteko, hala nola, zerrendak irekitzea, EPEak, azterketa deialdiak (HEO, EGA, Hizkuntza Eskakizunak…) beka deialdiak, sariak, eta abar. | Irakasleak, ikasleak eta herritarrak | Urtean zehar | Prentsa idatzia | 300.000 € |

## OSASUNA

| OSASUNA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| EKIMENA | HELBURUA | HARTZAILEAK | ALDIA | EUSKARRIA | KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE) |
| **AURRETIAZKO BORONDATEAK KANPAINA** | Osasunarekin lotutako aurretiazko borondateak adierazi eta erregistratzeko zerbitzuaren berri ematea jendeari. | Herritarrak | Definitu gabe (Osakidetzak oen artean txertatuta) | Prentsa Irratia | 23.000 € |
| **HAURREN HORTZAK ZAINTZEKO PROGRAMA (PADI) KANPAINA** | Ahalik eta familia gehien erakartzea, PADI programa erabili dezaten 7-15 urte bitarteko seme-alabentzat | Herritarrak | Definitu gabe (Osakidetzak oen artean txertatuta) | Prentsa Irratia | 38.000 € |
| **ZAINDU KANPAINA** | Alkoholaren gehiegizko kontsumoa ebitatzea | Herritarrak | Definitu gabe (Osakidetzak oen artean txertatuta) | Prentsa Irratia | 30.000 € |
| **ALKOHOLA ETA ADINGABEAK KANPAINA** | Gazteei ikusaraztea ez dela beharrezkoa edatea ondo pasatzeko | Nerabeak, gazteak | Ekaina, uztaila eta abuztua | On line bideak Sare sozialak | 35.000 € |
| **OSASUN-BALIABIDEAK BEHAR BEZALA ERABILTZEA KANPAINA** | Osakidetzan ditugun osasun-baliabideak identifikatzea, eta herritarrei azaltzea nola erabili behar diren | Herritarrak | Definitu gabe (Osakidetzak oen artean txertatuta) | Prentsa Irratia Kalean | 80.000 € |
| **BIHOTZEKO KODEA KANPAINA (OSAKIDETZA)** | Pertsona bati bihotzekoa ematen dionean 112 telefonora deitzeko garrantziaren inguruan informazioa ematea da kanpaina honen helburua. | Herritarrak | Maiatza | Irratia Tb | 50.000€ |
| **AUKERATU ZURE HIZKUNTZA KANPAINA (OSAKIDETZA)** | Osakidetzak harretarako zerbitzua ematerako orduan dituen aukeren berri ematea. | 14 urtetik gorakoak | Martxoa - Apirila | Prentsa Irratia Kanpoaldea | 50.000€ |
| **OSASUNAREN KARPETA KANPAINA (OSAKIDETZA)** | Osasunaren Karpetaren berri ematea, eta Osakidetzarekin online jarduteko abantailak ezagutaraztea | Herritar guztiak | 4/15 – 6/15 | Lonak Prentsa Irratia Kalean | 79.000 € |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **ODOL-EMATEA KANPAINA (OSAKIDETZA)** | Odol-emaileak kaptatzea eta odola ematea oso garrantzitsua dela gogoraraztea | 18 urtetik gorakoak | 6/15 – 10/1 | Lonak<br>Prentsa<br>Irratia | 24.000 € |
| **GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAINA (OSAKIDETZA)** | Txertaketa-kanpainaren berri ematea, eta arriskua duten taldeei gogoraraztea txertatzea garrantzitsua dela | Arriskua daukaten taldeak eta bestelako herritarrak | 10/2 – 12/31 | Lonak<br>Prentsa<br>Irratia<br>Kalean | 150.000 € |
| **URDULIZKO OSPITALEA OSORIK IREKITA KANPAINA (OSAKIDETZA)** | Urdulizko ospitalea osorik martxan dela jakinaraztea | Zentroaren eragin-eremuko edozein herritar | Martxoa | Prentsa<br>Irratia<br>Kalean | 11.000 € |

## TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

| TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENA** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **BERTAKO DENDAK, IZEN-ABIZENEKIN KANPAINA** | Euskadiko Txikizkako merkataritzari aintza emateko eta betiko dendei laguntzeko kanpaina | Herritar guztiak eta, bereziki, kontsumitzaileak | 3. edo 4. hiruhilekoa | - Prentsa - Irratia | 340.000 € |
| **EUSKADIRA TURISMOA EKARTZEKO KANPAINA** | Euskadi barnealdean eta kanpoaldean sustatzeko kanpaina: lehentasuneko merkatu eta produktuetan. | Kanpoalde eta barnealdeko turista | Urtekoa | Prentsa<br>Irratia<br>TB<br>Kanpokoak | 800.000€ |
| **KONTSUMOBIDE** | Kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa ematea, arduraz kontsumi dezaten | Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak | Urtekoa | - Irratia | 60.000 € |

| KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENA** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **KULTURA-FLASH, EITBn** | Euskadin sortutako kultura bistaratzea, eta jendearengana iritsiko dela ziurtatzea, EiTB erabilita | Herritarrak | Urtekoa | Telebista | 200.000 € |
| **EUSKARARI BULTZADA EMATEA** | Herritarrei euskaraz jarduteko gogoa piztea | Herritarrak | Urtekoa | Zehazteke | Zehazteke |
| **KIROLA EUSKAL GIZARTEAK BULTZATZEA** | 2017an zehar publizitate ekintzak garatuko dira gizartean kirolaren praktika sustatzeko | Herritarrak | Urtekoa | Prentsa | 30.000€ |

## SEGURTASUNA

| SEGURTASUNA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENA** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **TRAFIKO KANPAINA (ALKOHOLA ETA DROGAK, DISTRAKZIOAK, ABIADURA, HARRAPATZEA, MOTORZALEAK)** | Kanpaina honen bidez hartzaileei irakatsi nahi zaie garrantzirik gabeak edo egunerokoak diruditen egintza batzuekin tentuz jokatu behar dela, ondorio larriak eragin baititzakete. Gidariek istripuak eragiten dituzten ohiko kausekin ardura hartzea nahi genuke: **drogak edo alkohola hartuta gidatzea, arreta galtzea, azkarregi joatea, norbait harrapatzea, motorzaleak** | Bide publikoak erabiltzen dituztenak | Urte guztia | Irratia Telebista kanpoan eta internet | 750.000 |
| **LARRIALDIKO TELEFONOA 112 ETA EUSKALMET KANPAINA** | €pako larrialdi telefonoari (**112** ) eta **Euskalmet** kanpainei hedapena ematea | Herritar guztiak | Urte guztia | Irratia, telebista, kanpoan eta internet | 100.000 |
| **IKUSKIZUNETARAKO SEGURTASUNA KANPAINA (EDUKIERA, SU ARTIFIZIALAK, KIROLETAN INDARKERIARIK EZ EGOTEA)** | Publiko asko hartzen duten **ikuskizunetan segurtasuna** bultzatzea (**edukiera, segurtasun-tartea, indarkeriarik ez egotea)** | Ikuskizunetara doazenak | Urte guztia | Irratia, telebista, kanpoaldea, internet | 100.000 |
| **ERTZAINTZA KANPAINA (APP, PROMOZIO BERRIA, SEGURTASUNERAKO KONTSEILUAK)** | **Ertzaintzak** eskaintzen dituen **zerbitzuen** eta aplikazioaren berri ematea, **seguru ibiltzeko aholkuak** zabaltzea, eta **promozio berria** martxan dela jakinaraztea | Herritar guztiak, eta 18 eta 35 urte bitarteko gazteak | Urte guztia | Irratia, telebista, kanpoan eta internet | 250.000 |
| **ISTRIPUETAKO BIKTIMAK OROITZEKO MUNDUKO EGUNA KANPAINA** | Kanpaina honen helburua Nazio Batuen Erakundeak azaroaren hirugarren igandean ezarritako «Istripuetako Biktimak Oroitzeko Munduko Eguna/ Día Mundial en Recuerdo de las Víctimas de Accidentes de Tráfico» ospatzea da. Kanpaina honen bidez trafiko-istripuetako biktimak omendu nahi dira eta gizarteari dei egin nahi zaio, errepidean kontuz eta errespetuz jokatzeko premiaz kontzientziatu dadin. | Herritarrak | Azaroan 3. Astea | Irratia Prentsa | 12.500€ |
| **112AREN EUPAKO EGUNA KANPAINA** | 112 Larrialdi Telefonoaren €pako Egunean, otsailaren 11n, Euskadiko Gurutze Gorriko lehendakaria, Iñaki Irusta, omendu da aurten. Gainera, 112 telefonoa €pa osoan erabiltzen dela gogorarazi da. | Herritarrak | Otsailak 11 | Irratia TB Internet | 30.000€ |

## LANA ETA JUSTIZIA

| LANA ETA JUSTIZIA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **EKIMENA** | **HELBURUA** | **HARTZAILEAK** | **ALDIA** | **EUSKARRIA** | **KOSTUA GGB (BEZ-IK GABE)** |
| **LANEKO IRUZURRAREN KONTRAKO POSTONTZIA KANPAINA** | Jendeari jakinaraztea laneko iruzurrak direla-eta salaketa anonimoak jartzeko postontzi elektronikoa jarri dela martxan | Langileak, gizartea | Maiatza Iraila | Irratiko iragarkiak | Zehazteke |
| **DOANEKO JUSTIZIARI BURUZKO KANPAINA** | Doaneko Justizia zertan datzan jakinaraztea jendeari (dekretua onartzen denean) | Herritarrak | Abendua; baina ziurrenik 2018an izango da | Liburuxkak eta triptikoak | Zehazteke |
| **LAN-ARRISKUAK PREBENITZEKO KANPAINA (OSALAN)** | Lan-arriskuak prebenitzea oso garrantzitsua dela gogora ekartzea, Laneko Segurtasun eta Osasunaren eguna baliatuz | Langileak | Martxoaren bukaeratik apirilaren 28ra arte | Zehazteke | 72.000 € |